


MAIATZAK  
28

HBko zerrendaburua Nafarroan

## Adolfo Araiz

Herri Batasunak Nafarroako Parlamentura aurkeztu duen zerrendan azkenaldian ikuspegi zeharo desberdinak azaldu dituzten pertsonak ageri badira ere, Adolfo Araiz zerrendaburuak ez du uste hori ezertarako oztopo izango denik. Alderdi

barruan dauden sentsibilitate guztiak integratzen nahi dituela dio eta Parlamentuan jarraitzearen alde azaldu da. Borroka armatuaz, berriz, 'Oldartzen' txostenean ageri den analisia Patxi Zabaletarena baino zuzenagoa iruditzen zaio.



# «HBko sentsibilitate desberdinak integratzen ahaleginduko naiz»

Nafarroako Parlamentuan parte hartzen jarraituko dutela dio Araizek


ANA UNANUE / IRUÑEA

**EGUNKARIA.**— Nafarroako Parlamentura aurkeztu duzuen zerrendan bi sentsibilitate nabari dira, Floren Aoizena batetik eta Patxi Zabaletarena bestetik. Noren pentsakeratik zaude hurbilago?

**ADOLFO ARAIZ.**— Zerrendan osaketak ez dauka zerikusirik HBren baitan dauden sentsibilitate desberdinekin, jakina baita hautagaiak baseek aukeratzen dituztela bozketa bidez. Patxi joera baten ordezkari bada eta Floren beste batena, ez dut uste nire zeregina bietako bat aukeratzea denik. Erakunde batean ardura duen edozeinen zeregina dauden sentsibilitateak integratzea da. Nik behintzat hala egin nahi dut, bi joera desberdin horiek integratu nahi baititut.

**EGUNKARIA.**— Ekintza armatuek, esate baterako, azken urteotan lorpenik ez dutela ekarri eta eztabaida politikoa ezin dutela eragin esan du Zabaletak. Ados zaude?

**ARAIZ.**— Nabardura asko gehitu beharko nituzke. Nire irudikoz, Patxi ez du behar adina sakondu borroka armatuak eta ezker abertzalearen borroka guztiak egindako aportazioen azterketan. Puntu horretan ez nator bat Zabaletarekin. Zuzenagoa iruditzen zait 'Oldartzen' txostenean borroka modu desberdinez eta hauen aportazioez ageri den analisia. Zabaletak irakurketa linealegia egin du borroka armatuaren kostuei eta lorpenei buruz. Berak egiten duen irakurketa ez zait bidezkoa iruditzen. Bestalde, ez dut uste interferentziarik dagoenik eztabaida politikoa. Herri Batasunak jardura politikoa propioa du eta ez dago ETAK egiten duenaren edo egiten ez duenaren menpe. Ez dago ETArekiko menpekotasunik, elkarren arteko harremana baizik, eta, ondorioz, batzuetan gurutzatu egiten gara. ETArek ekintza armatuek eragin jakin bat dute, baina jardura politikoa oro har, ez HBn bakarrik.



Proposamen aurrerakoietan HBk Nafarroako Parlamentuan eragina izan duela dio Araizek.

JOXE

«Patxi Zabaletak analisi linealegia egin du borroka armatuaren kostuei eta lorpenei buruz. Puntu honetan ez nator bat».

**EGUNKARIA.**— Azken lau urteotan, lehendabizikoz, normaltasunez aritu zarete Parlamentuan. Nolako emaitzekin?

**ARAIZ.**— Balantzea ona da, hobeki ezagutu ditugulako erakundeak, baita horietatik lor dezakeguna ere. Gainera, partehartzeari esker harremanetan sartu gara ezker abertzalearen girokoak ez diren mugimendu sozial askorekin. Hori izan da aipagarriena. Esperientzia honekin eta harreman sare zabalagoa izanik, aurrerantzean proposamen zehatzagoak egiteko gai izan behar dugu. Jakina, muga handiak izan ditugu, baina honetaz jabetuta geunden hasi aurretik. Bagene-

kien erakundeetako lanak zenbait muga dituela berez, eta, jakinaren gainean geundenez, ez gara larritu gure ahaleginek deustarako ez zutela balio pentsatuz. Balio izan du, HBk eragina izan duela proposamen aurrerakoietan.

**EGUNKARIA.**— Partehartzeari dagokionez atzera egingo duzuela uste dute batzuek.

**ARAIZ.**— Hauteskundeen atarian beti lelo berarekin hasten dira batzuk, HBk atzera egingo duela esanez. Hamaika aldiz esan dut Parlamentuko lanari eutsi egingo diogula. 1991. urtean erabaki bat hartu genuen eta amaitu berri den eztabaidan ez da aldaketarik izan partehartzeari dagokionez. Beraz, Parlamentuan jarraituko dugu, erreparatu eduki arren. Mesfidantza dugu erakundeekiko, baina mesfidantza hori osasungarria iruditzen zait, sisteman erabat integratzerik nahi ez duen indar batek jarrera kritikoa izan behar duelako.

**EGUNKARIA.**— Abertzaleak indarra galtzen ari dira Nafarroan. Zergatik? Ba al dago beheranzko joera hau aldatzerik?

«Euskal nazioaren eraikuntzan aurrera egiteko ez da ezinbestekoa Gobernuan egotea, are gutxiago edozein preziotan bada».

**ARAIZ.**— Aldatu egin beharko genuke. Gakoa zera da, Foru Hobekutzak ezarritako egituraketa politikoa errotzen ari den neurrian, gero eta gutxiago hitz egiten dela bestelako aukerez. Ez da kontuan hartzen Nafarroak bestelako egituraketa bat eduki lezakeela. Hobekuntza indarrean sartu zenetik sendotu egin da probintzia bakarreko autonomiaren aldeko apustua egin zutenen aukera eta horrek kalte handia egin dio abertzaletasunari. Hala ere, uste dugu eztabaida hau ez dagoela itxita eta mahai gainean jarriko dugu berriro. Astindu bat eman behar diegu bestelako egituraketa nahi dutenei,

asko abstentzioan daudelako. Erakundeek eta jardura politikoa oro har ez dituzte abertzaleen nahiak gogobete eta nola baiteko etsipena dago, abstentzio bihurtzen dena. Gogoeta egin beharko dugu, egoera larria izatera hel daikete eta.

**EGUNKARIA.**— EArek ustez, abertzaletasunak «boterea ukitu» behar du Nafarroan aurrera egiteko.

**ARAIZ.**— Askotan entzun diot hori Iñaki Cabasesi, baina uste dut abertzaletasunaren premiaz baino gehiago bere alderdiaren beharraz ari dela. Euskal nazioaren eraikuntzan aurrera egiteko ez da ezinbestekoa Gobernuan egotea, nahiz eta lagungarria izan litekeen. Ez zaigu bidezkoa iruditzen Gobernuan edozein preziotan egon nahi izatea. HBk edukiei emango die lehentasuna, eta, oinarritzat programa hartuta, edozein eskaintza aintzat hartzeko prest egongo da.

**EGUNKARIA.**— Zer iruditu zaizue UPNren agintaldia? Damutu al zaizue gobernuburua aukeratzeko prozesuan izandako jokoa?

**ARAIZ.**— Ez. Aitzitik, azkenaldiko zenbait gertaerak HBk zuzen jokatu zuela erakutsi dute. UPNko Gobernu eskuindarra izan da, aurrekoa bezala. Sozialistek ere eskuineko politika egin zuten, ez da aldaketa handirik nabaritu. Ekonomian, gizarte politikan, aurrekontuetan... jarraipen bat egon da. PSOEk agindu izan balu analisi bera egingo genuke. Beraz, ez dugu eskuin gogorrena ezagutu, aldez aurretik ezagutzen genuena baizik.

**EGUNKARIA.**— Zer eragin izango du Alliren alderdi berriak?

**ARAIZ.**— Inkestek emaitza onak iragarri badizkiote ere, ni nahiko eszeptikoa naiz, ez dut uste horrenbesteko oihartzuna izango duenik. Oraindik ikusteko dago zer eragin izango duen, batez ere bestelako gobernu baten osaketan. Nolanahi ere, iruditzen zait Allik ezingo diola luzaroan eutsi bere diskurtso politikoa. Berrikuntza, modernizazioa, egitura zaharkituak gaintzeko premia eta antzeko mezuak baliagarriak izan daitezke haustura anean, baina gero eguneroko arazoei aurre egiteko proposamen zehatzak egin beharko ditu eta orduan ohartuko gara dena Nafarroako eskuinaren zatiketa besterik ez dela izan. Aurrerantzean ez dira nahikoa izango Alliren keinuak. Bere programa eskuindarra ez dela frogatu beharko du.